

bidegileak




Jose Mari Satrustegi (1930-2003)

Egilea:

PATXI SALABERRI

Bizia eta bizilekuak

*J*ose Maria Satrustegi Zubeldia Arruazun sortu zen 1930eko azaroaren 15ean, hamar senideko familian, eta Iruñean zendu, 2003ko martxoaren 27an. Larru zurikoa eta ile horia zen txikitan eta horregatik *Iduzki* izengoitia jarri zioten. Gazterik nabaritu zuen erlijioranzko joera eta horri amore emanaz Iruñeko apezgaitegian sartu zen, hamabi urterekin. Bertan apez ikasketak burutu zituen eta 1955ean eman zuen meza berria, bere sorterrian. Gero, urte horretan berean, Mardotzen egon zen bi hilabete eta erdiz, eta handik Luzaidera igorri zuten, bikario. Garaziko aldia eginik, Burundara



Jose Mari Satrustegi Zubeldia (1930-2003)

bidali zuten, Urdiaina; herri honetako erretoetzat 31 urte eman zituen, 1964an Luzaidetik atera zenetik 1995ean erretreta hartu zuen arte.

Satrustegi beti liburu eta testu artean bizitu zen, hots, etengabeko prestakuntza izan zuen, bereziki kontuan hartzen bada bere bizi guztian kulturaren munduan mugitu zela eta zituen eginbeharrengatik (euskaltzaina, antropologoa, aldizkari zuzendaria...) goiz-



Satrustegi amona Mariarekin eta gurasoekin. 1931ko argazkia



Familiako kideekin eta osaba Joakin Satrustegi kaputxinoarekin, honek meza berria eman zuenean, Iruñean. 1934 inguruko argazkia

danik idazle eta ikertzaile izen handikoekin egon zela harremanetan. Jose Marik maiz errepikatzen zuenez, «maisur handiak» izan zituen: apezgaitegian geroago testu zaharrak bildu eta argitaratzera bultzatuko zuen Goñi Gaztanbide ikertzaile ezaguna izan zuen irakasle, eta beranduago, besteak beste, Barandiaran, Caro Baroja eta Tovar ezagutu zituen. Bestalde, ezin aipatu gabe utzi Koldo Mitxelena euskaltzainkide eta hizkuntzalari ospetsuarekin izan zituen harremanak. Ibili ere franko ibili zen munduan barna: Argentinan izan zen, Armenian, Belgikan, Errusian, Estatu Batuetan, Europako erdialdean, Japonian... eta Humboldtkek esaten zuenez «Reisen bildet», bidaiak egiteak hezten du.

Liburu zaletasuna, paper guztiak jaso eta biltzeko joera txikitatik zetorkion, Luis anaiak dioenez. Bere liburutegian bizian zehar gordetako liburu berri eta zaharrak ageri dira, Nafarroako jende askok eskuratutakoak, Francoren diktadurapeko garai latzetan, luzaz, herrialde honetako euskararen erreferentea izan baitzen Jose Mari. Badira, alabaina, Satrustegik berak sutatik salbatutako zenbait testu zahar, bestela betiko galduko zirenak, adibidez Auritzen 1834an sortu eta gero Luzaidetako apez eta Orreagako priore izandako Nicolas Politen predikuak. Honela dio arruazuarrek (*Euskal testu zaharrak I*, 273): «Bere eskuizkribuak lozorroan egonak dira denbora luzean beste puska askorekin Erret-etxeko gela ilun batean. Ber-antolake-

taren bat egiteko hustu eta haltzari zaharrak erretzen ari ziren egun batez iritsi nintzen uste gabean eta niretzat bilduta zeuzkaten izkribuetaz jabetu».

Haurtzaroko liburu eta paper zaletasun horretan ikusi behar da, bada, Satrustegiren bizian hainbesteko garrantzia izandako testu zaharrak atxiki eta begiratzearren arrazoiak. Jarduera honen emaitza da, bestalde, filologoen artean arrunt ezaguna den *Euskal testu zaharrak I* liburua, eta heriotzak argitaratze-tik gibelatu zuen *Euskal testu zaharrak II* ere bai, hau artean proiektu hutsa izanagatik, esan bezala abian zen lana mozturik gelditu baitzen, Jose Mari hilik.

Satrustegi euskaldun garbia zen, bera bikario egon zen Luzaiden esaten den bezala «eskualdun pur-purra». Garai hartako euskara aberatsa *Kuartelea* jaiotetxean beretu zuen eta gero apez egondako herrietan osatu eta hobetu, hauta dena hobetu badaiten behintzat. Euskaldun petoa zen, bai, baina euskalduna izatea eta euskaltzalea izatea, zorigaitzez, oso gauza desberdinak izan dira Nafarroan. Pilar arrebak esaten duenez, beren osaba Joakin Satrustegi kaputxino abertzale eta euskaltzalea izan zen Jose Mari euskaraz kezkatzera eta euskara lantzera bultzatu zuena, eta hastapenean ezinezko ikusten bazuen ere, gerora gure hizkuntza bihurtuko zen Arruazuko apezaren kezka nagusia, haren biziaren zergati eta oinarri.

Berak kontaturik dakigu Luzaidera iritsi zenean ez ziela hangoei ulertzen, baina emeki-emeki hizkera ugari-goxo hartara jarritz, ohituz joan zela, erabat barneratu arte. Honetan, ez da dudarik, Luzaiden igarotako urteez landara gelaritzat, laguntzaile eta adiskidetzat izan zuen Goienetxeko Maria Dolores Etxeberriaren eragina ikusi beharra da, etxean Luzaideko euskara baitzen ohiko mintzoa. Garaziko herrian bikario egoteak eta euskaltzaina izateak, bestalde, Iparraldeko beste apez eta kultura eragile euskaldun franko ezagutu eta haiekin harremanetan egoteko aukera eman zioten; horien artean R. Lafon, L. Dassance, J. Hiriart-Urruti, P. Narbaitz, P. Lafitte, Iratzeder eta E. Larre aipa daitezke, beste askoren artetik. Honek, ezbairik gabe, euskara eta Euskal Herria bere osotasunean ikusteko eta ulertzeko aukera eman zion, mugaz honaindik euskaldunek Iparraldeaz izan ohi dutenaz arras bestelako ikuspegia edukitzeko.

Luzaideko euskara urrun dago Jose Marik Arruazuko bere sortetxean ikasi zuenetik, eta ulertzekoa da, bi herriok elkarrengandik aski urrun daudelako. Hain aise ulertzen ez dena da nola Sakana bereko, Arruazutik hamabost bat kilometrora dagoen Urdiain herriko hizkera arrotz egiten zitzaion, hain arrotz non Luzaiden bizitutako arazoak berri ere bizitu behar izan baitzituen, azkenean honetara ere jarri zen arte. Zernahi dela, lehenago Luzaiden bezala, Urdiainen ere Sastrustegi bertako euskararen bultzatzaile sutsu gertatu zen, hainbeste ezen apezaren eragina eta lana ikusten baitira urdiaindarrek beren hizkuntzaren aldera erakutsi duten atxikimenduan. Jakina da Nafarroako herri askotan maisuaren, maistraren edo apezaren erdaltzaletasunak, euskara ezin ikustek —nahiz eta bista ona izan gehienetan— gure hizkuntzari erreka joarazi diola, eta, alderantziz, maisu-maistra edo apeza euskaltzalea izatea biziraupeneko arrazoi izan dela.



Kuartelea jaiotetxea 1960 hamarkadaren hasieran. Jesus, Maria Jesus eta Pilar senideak ageri dira, Atarrabiako lehengusina batekin

Gogoan dugu Galipentzuko gizon hark 1730ean zioena: «...que yo he conocido a todos los viejos hablar vascuence y al maestro que fue causa se perdiese la lengua primitiva, que obró mal» (Irigarai, 1974: 74).

Jose Mariren lehenbiziko ikerlanak Luzaiden egon zen garaikoak dira; orduan hasi zen hemengo aldizkarietan bere curriculum luzearen lehen aleak argitara ematen eta orduan izan zituen, orobat, aurreneko harremanak euskal kulturaren aitagoia izandako Koldo Mitxelena erreteriar hizkuntzalari handiarekin. Beraz, lehen artikulua Luzaiden idatzi zituen, eta gero jo eta ke lotu zitzaion ikertu eta idazteari, denera mila eta berrehun arti-

kulu baino gehiago kaleratu baititzituen eta liburu franko.

Madotz, Luzaide eta Urdiainen egondakoan, 65 urterekin erretreta hartu zuenean bere sorterrira itzuli zen, zaharberritutako *Milikonea*-ra, eta harrezkeroztik idazteari ekin zion buru-belarri. Etxean goxokiro egindako lanaz gainera, Jose Mari hondarreko urteetan hitzaldiak ematen ibili zen han-hemen, gai askoren gainean; erretiratu baino lehen ere horrelaxe ibilia zen, izenkide eta adiskide zuen J. M. Jimeno Jurio bezala. Hil aurretik euskal mitologiaren gaineko hitzaldia egin zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoan 2002ko abenduan eta hilabete berean Bilbon euskal oratoriaz min-



Satrustegi gurasoekin eta anai-arrebekin



Lehen meza ematen, Arruazun, 1955ean, Martxelo Gartziarena eta Saturnino Zubeldia osaba txikiekin

tzatzen izan zen. Geroztik ere hitzaldi bat baino gehiago egin zuen, hil aitzinetik, eta ez da mirestekoa, Satrustegi aditzekoa baitzen, errotik ezagutzen zituen gaien inguruan zihardue-
nean, hizkera pausatu eta aberats harekin, en-

tzuleen belarrien gozagarri. Garbi ikusten zen Jose Marik zuen hizkuntzaren ezagutza sako-
na gehienbat ahoz jaso zuela, jendearengandik ikasi zuela, Arruazun bertan lehenik eta apez egondako herrietan gero.



Aita-amak eta seme-alabak, 1957an



Luzaideko bolantekin, 1957an

Satrustegi eta Euskaltzaindia: euskara batuaren sorrera

Satrustegiren bizian garrantzi handia izan zuen Euskaltzaindiak. Berak bere burua euskaltzaintzat definitu ohi zuen eta izan ere hala zen: 1957an izendatu zuten euskaltzain urgazle eta 1963an euskaltzain oso. Hortaz, zendu zenean berrogei urte bete behar zituen euskaltzain osotzat, ez baita gutxi! Gainera, he-mezortzi urtez Akademiaren Nafarroako ordezkaria izan zen, 1979az geroztik 1997an kargua utzi eta A. Iñigok haren lekua hartu zuen arte. Denbora horretan Euskaltzaindiaren lanetan parte hartu zuen, bilkura guztietara joanez, bai osokoenetara eta bai, eratu ze-

netik, onomastika batzordearenetara. Oroitu beharra dago, gainera, hamalau urtez Akademiako idazkaria izan zela, aita Villasanterekin gehienbat, baina baita Haritxelharrekin ere geroago. Iñigok (2003b) dioenez, Euskaltzaindia izan zen Satrustegirendako bigarren familia, eta euskaltzain izatea «bere nortasun ezaugarriarik nabarmenena, txapela bere irudiari bezain ongi zegokiona».

Akademian, esan bezala, ohiko zereginetan parte hartu zuen eta *Hiztegi Batua*-ren pres-takuntzan berak egindako oharra eta ekar-penak beti interesgarri suertatu ziren (Iñigo, 2003); adibidez *san*, *santu*, *done* terminoen inguruko txostenaren prestalanetan haren



Luzaiden, Euskaltzaindian sartzean, 1963ko irailaren hamabostean. Argazkian J. Haritzelhar (jarririk, ezkerrean), A. Irigolen (zutik) eta A. Irigarai (jarririk, eskuinean) ikus daitezke. Diploma ematen ari zaiona J. M. Lojendio euskaltzainburua da

ekarria handia izan zen, *Euskera* aldizkarian argitaratutako «Santutegiko *done* forma Hegoaldeko tradizioan» izeneko artikuluan ikus daitekeenez.

Zernahi dela, Euskaltzaindian egindako lane-tatik berak beti gogoan zuena euskara baturaren sorreran izandako parte-hartzea zen. Askotan kontatzen zuen, eta gero idatzi ere



Jose Mari Pierre Lafitterekin, Urdazubin, 1974ko irailaren 14an

bai, hizkera estandarraren jaiotza markatu zuen 1968ko Arantzazuko Biltzarrean zer gertatu zitzaion eta honen aurretik izandako bilerak zenbaterainoko garrantzia izan zuen. Bilkura hau Zumarragako tren geltokian egin zen, 1967. urtean, garai hartako Hezkuntza eta Zientzia Ministerio francotiarraren kide zen Serra Estruch funtzionarioaren eskariz. Jaun honekin elkartu zirenak, Akademiaren partetik, Manuel Lekuona euskaltzainburua, Koldo Mitxelena, J. M. Satrustegi bera eta laugarren bat (Luis Villasante irudi duenez) izan ziren. Serra katalana zen eta hortik euskararen aldera erakutsi zuen interesa; mezua hurrengoa zen: euskara dialekto eta azpidialektoetan banaturik zegoen, eta egoera horretan ezinezko gertatuko zen aurrera egitea, aire berriek iragartzen zuten bezala hizkuntza, euskara, eskoletan irakastea. Eredu batua lortu behar zen, bestela edonolako plangintza egitea ezinezkoa izango zen eta

testu liburuen osatzea ere berdin, hainbat hizkeratan moldatu behar baziren.

Bilera bukatu zenean Manuel Lekuona euskaltzainburuak Koldo Mitxelenari gaiaz lehenbailehen arduratzea proposatu zion, bai eta Errenteriakoak onartu ere dirudienez, hurrengo urtean aurkeztutako txostena, batuen sorreratzat har daitekeena, apailatu baitzuen. Arantzazuko batzarra, ezaguna denez, 1968an izan zen, Gipuzkoan denbora hartan indarrean zegoen salbuespen egoeraren pean; garai zaila zen hura, eta, esaterako, jendea taldeka biltzea galarazita zegoen. Satrustegi orduko hartan Urdiainen zen eta itzulinguru askoren ondotik baizik ez zen monasteriora iritsi, ez baitzuen sekulan autorik erabili. Arantzazura iritsi zenean batzarra hasia zen eta Mitxelenak mahaian egon behar zuela esan omen zion. Berak ez omen zuten horrelakorik espero eta hagitz gogorra



Jose Migel Barandiaranekin,
Ataunen, 1975eko ekainaren 8an



Satrustegi Extremadurako Plasencian, haurride eta ahaideekin. 1975 inguruko argazkia

egin omen zitzaion, bertan zegoen giro kalapitatsua zela eta, moderatzaile lana behar bezala egitea.

Nolanahi ere, batzar hartan egun hain normala iruditzen zaigun euskara batuaren oinarriak finkatu ziren eta bertan hartutako erabakiak euskara idatzian —horretarako pentsatua baitzegoen, hastapen hartan, eredu batua— gauzatzen ziren ala ez ikusteko, edo zer heinetan egiten ziren, hamar urteko epea jarri zen. Hortaz, esan dezakegu J. M. Satrustegik euskara batuaren jaiotze prozesuan haste-hastetik parte hartu zuela eta gero ere batze lanetan murgildurik egon zela, euskaltzain zen aldetik.

Satrustegi eta Nafarroako euskararen pizkundera

Jose Mari, esan bezala, 1930. urtean sortu zen. Gaztarora iritsi zenean Frankismoaren urterik gogorrenetan sartua zen Euskal Herria eta euskara arlo, eta sail guztietatik baztertuturik zegoen; debeku zen gure hizkuntza. Aski izan bedi orduko giroa zein latza zen ezagutzeko Espainiako diktadore txikiak euskara hilerri eta hilarrietatik ere lekuarazi zuela jakitea. Arrazuarrari ez zitzaion erraza izan negu gorri hartan euskal gauzez arduratzeari; idatzirik utzi du apez euskaldun batek bera euskaraz zuzendu zitzaionean erantzun ziona: «¡no sé a dónde vais con eso!».

Nolanahi ere, poliki-poliki eta Miguel Javier Urmeneta bezalako politikari euskaltzaleei esker, *Príncipe de Viana* kultura erakundearen babesean sortutako «Sección de Fomento del Vascuence» zelakoaren bidez zenbait euskaltzale saiatu ziren euskaldunei euskarak zuen balioa erakusten, beren hizkuntza gutxiets eta arbuia ez zezaten. Hasierako lan hartan Urmenetaren gidaritzapean Jose Agerre, Aingeru Irigarai, Pedro Diez de Ultzurrun eta Satrustegi bera aritu ziren, besteak beste. Lehen urrats haren helburua ez zen euskararen mugak zabaltzea, hizkuntzari eustea baizik, atzeranzko joeran abiatua baitzen, oldar gaitzean. Joera hura iraultzeko herriz herri ibili ziren, leku bakoitzean euskara ongi menperatzen zuten hurrei saria (diploma

eta dirua) emanez. Esku-erakutsia jaso zuten haur haietako bat gerora euskaltzain oso eta Euskal Herriko Unibertsitateko errektore izanen zen Pello Salaburu arizkundarra izan zen; beraz, bistan da ahalegin haiek zenbaite-tan bederen ondorio ona izan zutela. Herriz herri ibiltzea ez zen lan erraza izan, ordu arte gure hizkuntzan hitz egitea debekaturik eta zigorturik egon zenez gero jendeak ez baitzuen ongi ulertzen nola ematen zitzaizkien hurrei sariak euskaraz ongi mintzatze-agatik; honela dio Satrustegik berak: «Guraso batzuen harridura izugarria zen: “artean zigorra euskaraz hitz egiteagatik, eta orain saria?” zioen isilka Berueteko zinegotzi bategen herriko etxean sartu ginelarik guardia biren ondoan».



Lehen Korrika-n, Oñatin, 1979an. Eli Galdosekin dago



J. Caro Barojarekin, L. Villasanterekin eta J. Balduz Iruñeko alkatearekin, Euskaltzaindiaren X. Biltzarren kariatara, nafar hiriburuko herriko etxean, 1984ko irailean



Urdiaingo apezetxeko atarian, Maria Dolores Etxeberria gelariarekin eta Japoniako Suzuko lagunarekin, 1984ko irailaren 12an

Jose Marik oso garbi ikusten zuen diktaduraren garai zail haietako lana euskara aitzina ateratzeko egindako urrats bat besterik ez zela, aurreko belaunaldietakoek (Campión, Larreko eta Manezaundik lehenik, A. Irigarai, D. Intza, A. Tapia Perurena, J. Agerrek gero) emandakoen jarraipena, eta oraindik ere bazirela beste urrats batzuk emateko. Behin Nafarroako Unibertsitate Publikoko euskararen egoera gogorra solasgai hartuta honela mintzatu zitzaigun Arruazukoa: «Garai batean euskarak ez zuen lekurik eskoletan eta gu saiatu ginen, eta geroztik hona haur askok ikasi dute gure hizkuntzan eta gero eta gehiagok ikasten; orain, berriz, zuen lana euskara unibertsitatean sarraraztea da. Zaila izanen da, baina lortuko duzue». Hemen ikusten da Jose Marik bazuela garai gogorretan bizi izan direnen eskarmentua eta perspektiba, eta ez zuela aisea etsitzen.

Aldizkarien eragile

Satrustegirekin maiz hitz egin duenak badaki berak zuzentzen zuen *Fontes Linguae Vasconum* (FLV, «euskaldunen hizkuntzaren iturrirak») aldizkaria zein gogoko zuen. Izan ere, *Príncipe de Viana* erakundeko zuzendaria zen J. E. Urangak Urdiaina egindako bisita batean sortu zen euskal gaiez ariko zen aldizkaria abian jartzeko ideia. Oztopoa —eta Urangaren beldurra— zen holako gai murrizak ukitzeak arriskutan ezar zezakeela agerkaria, argitaratzeko artikulurik aski izango ez zela-koan. Jose Marik orduan izenari *studia et documenta* («ikerketa eta dokumentuak») gehitzea proposatu zuen, ezbairik gabe etxean metatutako testu zahar mordoa zuelako burutan.

Urdiaingo bilera 1968ko udan egin zen eta FLV hurrengo urtean atera zen kalera, 1969an. Lehen aleetan A. Tovar, Julio Caro



Jose Mari Pablo Antoñana eta Julio Caro Barojarekin, bazkaldu aurretik, 1986ko urriaren 7an

Baroja —aldizkariaren zuzendaria izan zen garai batez— eta batez ere Koldo Mitxelena-ren artikulua azaltzen dira, autore ospetsu horien laguntza eta babesa izan zuelako seinale. Satrustegi lehenik argitalpen kontseiluko kidea izan zen eta gero, 1988tik aitzina, zuzendaria. Bere lehen lana, aldizkari hone-tan, 1969ko bigarren zenbakian ageri den «Libro de cuentas de un herrero de Valcarlos (S. XIX)» izeneko da, bigarrena urte be-reko hirugarren zenbakiko «Romance del amante relegado, en la literatura popular vasca» eta hirugarrena laugarren zenbakiko (1970) «Notas al libro de cuentas de Valcarlos». Hemendik aitzina ia zenbaki guztietan du Satrustegik lanen bat *FLV*-en, hirurogei in-guru denera.

Aldizkariak garrantzi handia izan du azken hamarkadetan, bertan euskararekin modu batera edo bestera erlazionatutako artikul-u franko kaleratu direlako. Oraindik ere mun-ta handikoa da, Nafarroan euskararen ingu-ruko ikergaiak jorratu eta plazaratzeko au-kerak gutxi baitago. Satrustegi beti prest egoten zen egile berriei aldizkariaren ateak irekitzeko, bereziki egile horiek nafarrak ba-ziren, nahiz ongi zekien hastapeneko lanak ezin izan zitezkeela oso onak. Aldeko jarrera horri esker argitaratu ahal izan dituzte iker-tzaile gazte askok beren artikulua. Egile gazte edo berriei ez ezik, euskararen jato-rraren inguruan mintzo ziren lan frankori ere sarrera eman zien Arruazukoak, itxuraz behintzat bitxi edo arraro samarrak baziren



Satrustegi Espainiako errege-erreginekin, 1984an, Madrilan

ere lan horietan azaldutako ustekari edo hipotesiak. Berak teoriak plazaratzea nahi zuen, gero adituek irakurri eta egoki iruditzen bazitzaien erantzuna egin zezaten. Horren harira ulertu behar dira, adibidez, euskara armenierarekin lotzen saiatzen diren artikulua.

Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra izeneko aldizkaria ere Satrustegiren eragitez sortu zen, oraingoan J. Caro Barojaren lankidetzarekin eta J. M. Barandiaranen laguntzarekin. Helburutzat Nafarroako eta oro har Euskal Herriko etnologia eta etnografia ikertzea zuen agerkari berriak, jakite hauek «gure herriaren biziaren eta ohituren erraiak ezagutarazten dizkigutelako». Honetan hogeita lau artikulua eman zituen argitara arruazuarrak.

Euskal izenak

Jose Mariren obrako arlo behinena onomastika da. Esan dugunez hasiera-hasieratik Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko kide izan zen eta bertan arlo horrekin lotutako gai asko ukitu behar izan zituen: toponimia nagusia (Euskal Herriko eskualdeen izenak, hiri eta herri izenak...), toponimia txikia (aurkintza edo dermioen izenak), kale izenak, etxe izenak, deiturak, pertsona izenak... 1957an, Luzaidera iritsi eta handik bi urtera, «Apellidos de la Baja Navarra» zeritzan lana argitaratu zuen eta lau urte beranduago, 1961ean, «Aportación al estudio de la onomástica tradicional vasca». Onomastikaren arlokoak dira, baita ere, 1965-66an lehen aldiz eta 1968an bigarren bezala kaleratu zuen «Las casas de Valcarlos» eta 1969-70ean ar-



Maribi Betelu ilobaren ezteietan,
Arruazun, senideekin, 1989ko
urriaren 12an

gitara ateratako «Toponimia de Valcarlos»; lan hauetan ikus daitekeenez, arrunt ongi baliatu zuen egileak Luzaiden egindako egonaldia.

Zernahi gisaz, Satrustegik begikoen zuen ekarpena *Euskal Izendegia*-rena zen. Aurrekariak bazituen: 1955ean argitaratu zuten A. Irigaraik eta K. Mitxelenak beren «Nombres vascos de persona» eta 1966an moldatu zuen autore horietako lehenak *Nomenclátor Euskérico de nombres de pila* izeneko lana. Franko lehenago, 1897an, Sabin Aranak *Egitegi Bizkattarra* aterea zuen, eta 1910ean Koldo Eleizalde abantotarraren *Deun-Ixendegi Euzkotarra* emana zuen argitara. Azken bi lanotako izenak, halarik ere, guztiz debekaturik zeuden, hainbeste non, Gerla Zibilaren ondotik, zerrenda horietako izena zutenek aldatu

behar izan baitzuten, «ofizioz» alda zekien nahi ez bazuten behintzat. M. Gorrotxategik dioenez 1938an Francoren agintariek horrelakoak erabiltzea galarazi zuten, «gaztelania ez den beste hizkuntza batekoak izateaz gainera aberriaren batasunaren kontrakoak» zirelako. Aginduak atzeranzko eragina ere izan zuen eta euskaraz idatzitako izen guztiak aldatu ziren, zenbaitetan jabeei deus jakinarazi gabe; Sopuertako ikertzaileak dioenez, Barakaldon euskal izenak «Viva Franco» esaldia zuen tanpoi batekin estali ziren.

Euskaltzaindiak 1966ko zerrenda osatu beharra ikusi zuen, herrian «euskal izenen irrika gehitzen» ari zelako eta «ahal zen neurrian eskariei erantzun» behar zitzaielako. Akademiaren aginduz Satrustegik hartu zuen bere gain zerrenda osatzearen ardura; 1969an ekin zion lanari eta 1972an ikusi zuen argia lehenbizikoz *Euskal Izendegia*-k. Lehen libu-



Maribi Betelu ilobaren Jokin semearen bataioa, Arruazun, 1991ko martxoaren 31n. Ponte horretan berean bataiatu zuten Jose Mari Satrustegi 1930ean



Jose Mari Fdo. Arretxe luzaidar pilotariarekin eta herri bereko Maria Dolores gelariarekin. Datarik gabe

ruxkak 565 sarrera zituen (206 mutilenak eta 359 neskenak), bigarrenak 1.114 (471 mutilenak eta 643 neskenak) eta hirugarrenak 1.640 gutxi gorabehera (689 mutilentzakoak eta 950 inguru neskentzakoak); 160.000 ale banatu ziren, egileak aitortzen duenez.

Lehenbiziko argitaraldia Francoren garaian egin zen beraz, Hegoaldean «pertsona izenen esparrua lege aldetik oso mugatua eta murrizta zen» garaian, eta bakarrik erdarazko baliokiderik ez zuten euskal izenak sartu ahal izan zituen, legeak hala agintzen zuen eta. Kristau egutegiko santuen izenak, *Antonio*, *Luisa*, *Pedro* esaterako, erdaraz bakarrik erabil zitezkeen, eta berdin Andre Mariaren bizitzako misterioei erreferentzia egiten zietenak (*Anunciación*, *Asunción*, *Concepción*) edo Ama Birjinaren debozioekin lotutakoak (*Carmen*, *Mercedes*, *Rosario*...). Egoera tamalga-

rria zen; Satrustegik kontatzen du Amaia Zu-
loaga, Irakasle Ikasketak burututakoan, harri eta zur gelditu zela maistra titulua *Amaia*-ren izenean ez, baizik *Maria Fin*-enean jaso zue-
nean. Bide beretik, Gernikako epaitegian *Golondrina* ipini zioten neskatila bati, *Ainara*-ren ordez. Egoera negargarri hartan jendea erdal baliokiderik ez zuten izenak biltzeari lotu zi-
tzaion, eta berriak asmatzeari ere bai. Jose Marik asmakizunak alde batera utzi zituen eta dokumentu zaharretako nahiz herri tra-
dizioko izenak biltzeari ekin zion; gure auto-
rearen arabera, Andre Mariaren ermitek eta tokian tokiko izenak eskaintzen zuten ha-
rrobi nagusia. Honi esker sartu ziren *Ainhoa*, *Eneritz* eta *Nagore*-ren tankerako izenak, bai eta ere *Saioa* mendi izena eta hitz arrun-
tetan oinarritutako *Oihana* edo *Oinaze*-ren taxukoak.

César Fernández Navarro margolariarekin
eta honen emaztearekin,
Argentinan, 1992ko irailaren 25ean





Euskararen Aholku Batzordearen bilkura, Arantzazu lehendakariarekin. 1993ko agorriaren 28an



Bigarren argitaraldia 1977koa da, izenak Estatuko edozein hizkuntzatan ezartzeko aukera ematen zuen legearen ondokoa; honek, gainera, aita-amen borondatearen kontra Erroldan ipinitakoa aldatzeko bidea ireki zuen. Hau guztia zela eta, bostehun izen gehitu zizkion bildumari arruazuarrak, berak dioenez.

1980an Erregistro eta Notariotzako Zuzendaritza Orokorrek zirkular bat plazaratu zuen, non gurasoei eskubidea aitortzen baitzitzaien haurrei nahi zuten bezalako izena paratzeko (historikoa, mitologiakoa, geografikoa...). Jose Marik ez zuen egonean goxo planto egin eta izenak biltzen jarraitu zuen, handik eta hemendik. Ahalegin hauen fruitu izan zen hirugarren liburuxkak duen 1.600 sarrreratik goitiko bilduma.

Egia da Euskal Herrian, Hegoaldean batez ere, lehen iraultza onomastikoa S. Arana Goiriren eta K. Eleizalderen eskutik etorri zela (*Aintzane, Ane, Bakarne, Bingen, Edorta, Gaizka, Gorka, Gotzon, Iker, Iñaki, Jokin, Julen, Joseba, Josu, Karmele, Kepa, Koldo(bika), Neka-ne...*), baina egia da, baita ere, Satrustegiren izendegiak XX. mendearen azken herentsuan oso ezagunak izan direla eta arrunt erabiliak

haurrentzako izen euskalduna aukeratzeko garaian. Jose Mari harro zegoen sortu zuen izen iraultza horretaz, eta arrazoiz, beraren eraginez zabaldu baitziren eta ohiko egin *Ainhoa, Aiora, Aitziber, Ainara, Amaia, Amagoia, Arkaitz, Arritokieta, Asier, Egoitz, Eguzkiñe, Ekaitz, Eneko, Erkuden, Garazi, Garikoitz, Hodei, Ibai, Nagore, Oier, Oihan(a)* eta *Urtzi* bezalako izenak, besteak beste. Huts egiteko beldurrik gabe esan daiteke Satrustegiren lanak belau-naldi oso baten onomastika bideratu eta markatu duela, hainbestearaino non, eskualdeen arabera, XX. mendearen erdialdean ohiko-koen ziren izenak desagertu eta haien orde- z Jose Mariren izendegian azaltzen direnak (batzuk S. Aranak sortuak dira) erabiltzen baitira gaur egunean. Euskal Herritik kanpo ere hedatu dira euskal izenak, eta honetan ez da dudarik Arruazukoaren lanak zerikusi handia izan duela.



Arruazuko uholdeak: *Milikonea* urez inguratutik, 1993ko abenduan

Antropologia eta etnografia

Goizdanik erakutsi zuen gure autoreak antropologia eta etnografiaren alderako interesa; esan dugunez, haren eragitez sortu zen *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra (CEEN)* aldizkaria eta bertan eta beste agerkari batzuetan artikulua ugari eman zituen argitara: «Folklore de Valcarlos. Los numerales en el folklore», «Estudio del grupo doméstico de Valcarlos», «Sueños y pesadillas en el devocionario popular vasco», «Personajes singulares del folclore vasco», «Lamias y sirenas a través de la simbología», «Mitoa herri-kantu eta ipuinetan»... e.a.

Arlo honetako liburuen artean *Solsticio de invierno* (1974), *Euskaldunen seksu bideak* (1975), *Mitos y creencias* (1980, 1982, 1983, 1995), *Comportamiento sexual de los vascos* (1981), *Antropología y lengua* (1989), eta *Sakanerri barrena* (1999) aipa daitezke. Lehenean

neguko data garrantzizko hauek aztertzen ditu, besteak beste: Olentzero, Eguberri, Urte Zaharra, Errege eguna, San Bladi, Santa Agata... 1989ko liburuan, tituluak dioenez, antropologiako eta hizkuntzaren inguruko gaiak ikertzen ditu: ahozko tradizioa, herri literatura, *kokoa* terminoa, denbora-hitzak... eta abar. 1999koan, berriz, Sakanako kontuak jasotzen ditu, toponimiakoak, historia-koak, herri jakintzakoak, ezkontzen ingurukoak, denak euskara garbi eta jatorrean idatzirik. 1975ekoan eta honen itzulpena den 1981ekoan, buruenik, euskaldunen sexu jokabideaz hitz egiten du, Estrabonek biltzen dituen berrietatik hasita Nafarroako foruetan eta Trenton barna gaurko ohituretaraino,



Jokin Lantz ilobaren jaunartzean, Arruazuko elizan, bertako erretore Anastasio Lazkozekin. 1999ko ekainaren 13ko argazkia

Arruazuko *Kaxeronea*-n, sutondoan, Jokin eta Ibai ilobekin, 1997ko martxoan

dantzak eta komenentziako ezkontzak ahaztu gabe.

Roldan Jimenok (2003) dioenez, Barandiaranen *Mitología Vasca* liburua aipatu ohi da gai horren inguruko liburu garrantzizkoentzat, baina arloa maingu geldituko litzateke Satrustegiren *Mitos y creencias* kontuan hartuko ez balitz. Bertan mitoaren izaeraz eta baliogabetzeaz mintzo da egilea, oinarritzko mito kosmogonikoez (Urte Berriko uraren gaiaz, Udako solstizioaz) eta euskal folkloreko pertsonaia mitiko ezagunenez (Mari, Herensuge, Basajaun, jentilak...). Arruazuarraren emana Caro Barojaren eta bereziki J. M. Barandiaranen lanaren ondorio da hein batean, eta, horregatik, Satrustegiren etnografia Vienako eskolaren barrenekotzat aitortu beharra da, nahiz etnografia historikoaren bitartez zabalkunde handiagoa ematen dion jakite horri.



Satrustegi idazle

Satrustegi idazlea zen, halakotzat idazten duena hartzen badugu. Bestela, idazlea sortzailatzat jotzen badugu, eleberri, antzerki eta bestelako lanak osatzen dituen egiletzat, esan beharko dugu Jose Mari neurri txiki batean baizik ez zela idazlea. Dakigunez antze lan bakarra moldatu zuen, *Ekaitza* eleberria. Nolanahi ere, literatura zaletasuna aspalditik zetorkion: apezgaitegiko urteetan Espainiako idazle klasikoak alderen alde, buruan buru irakurri zituen eta irakurketa haiekin gozatu ederrak hartu ere bai, berak zioenez.

Honetaz gainera, jende xehearengandik jaso zituen ipuin eta elezaharretatik abiatu



Iruñeko *Euskalerria Irratia*-k *Larreko* saria eman zionean, Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolan, 2002ko martxoaren 30ean. Luis, Carmen eta Pilar senideak eta Leire iloba ageri dira Jose Marirekin

Luis Villasante Kortabitarte euskaltzainburu ohiarekin solasean, 1998ko abenduan



Madotzen, haurride eta ahaideekin,
2002ko martxoaren 18an

moldatutako bestelako liburu mordoa du, zenbait euskararen irakaskuntzan franko erabili direnak: *Lapur Zuriak* (1981), *Ipui mi-resgarriak* (1982), *Axelko eta Otsoko* (1983), *Mattin Mottela. Sakanako lpuinak / Cuentos de la Barranca* (1997; euskaraz eta erdaraz idatzia)... *Bordel bertsularia* deitzen den liburuan (1965) Luzaideko Bordelea etxeko koblakari ospetsuaren bertsoak biltzen ditu eta haren biziaren berri zehatza ematen; *Luzaideko kantiak* izenekoan (1967), berriz, Garaziko herri horretako kantuak eta bertsoak jaso eta haien inguruko hamaika berri jakingarri azaltzen ditu. Inoiz bertsolarien akuilari, bultzatzaile eta laguntzaile gertatu zen, esaterako aipatutako *Bordel* bertsolariaren biloba zen Juan Cruz Arrosagarairen lanak argitaratzean (*California-tik kantuz*, 1983).

Beste batzuetan, azkenik, lehengo edo oraingo idazleez dihardu; *J. Frantzisko Aizkibel (1798-1864)* izenekoan, esaterako, Azkoitiko idazlearen bizia eta lana bildu eta aztertzen ditu (artikulu batean baino gehiagotan ere

hitz egiten du azkoitiarrak: «Aizkibel euskera batuaren aitzindari», «Aizkibel: argien mendeko azkoitiarra (1795-1865); «¿Cuál fue el paradero de los originales de Aizkibel?»). *Bidegileak* bilduman *J. Frantzisko Aizkibel, Alexander Tapia Perurena, Perpetua Saragueta, Joxe Agerre, Norbert Tauer* eta *Aita Felipe Murieta*koa argitaratu zituen.

Liburuak ez ezik, artikulu bat baino gehiago idatzi zituen herri literaturaren inguruan: «Bordelen mintzaira», garatu ondoren liburtzat aterako zuena, «Correspondencia familiar vasca del siglo XIX», «El cantar del «Judío errante»», «Texto bilingüe de una canción amorosa guipuzcoana del siglo XVIII»... Bestalde, Satrustegik ardura berezia izan zuen bere bizian Luzaideko euskaran idatzitako eskutitzak, «letrak», gorde eta atxikitzeke, berari eta batez ere M^a Dolores gelariari bidalitakoak. Hauetako asko xuka deitzen den lagunarteko tratamendu goxoan idatzirik daude, eta badute balioa literaturaren aldetik, baina baita dialektologiaren aiekatik ere, Garaziko euskara hobeki ezagutzeko tresna hauta baitira aski hizkera herrikoian idatzirik dauden gutun horiek. Tamalez gehienak argitarakizun daude oraindik; dakigula Satrustegik berak *Iker-I*-en kaleratutako bakanek baizik («Xukako aditz joskera Luzaideko mintzairan») ez dute argia ikusi.

Bestelakoak

Zaila da Arruazuko ikertzailearen lana arlo gutxi batzuetara mugatzea, zenbait artikulua ezin daitezkeelako aipatu ditugun horietan sailkatu. Atal honetan, esate baterako, Satrustegik hiztegiaren arloan egindako lana sar daiteke, bereziki «Vocabulario popular» izenekoa, non gehiengo diren Luzaideko hitzez gainera Arruazu aldeko beste ele batzuk ere biltzen baititu. Era berean, Garaziko herriko hiztegiaren bilakaera ikertzeko interes handikoa da gorago aipatu dugun «Libro de cuentas de un herrero de Valcarlos». Bestalde, 1982an *Ordenanzas de la Universidad del Valle de Burunda, 1563* izeneko liburuxka eman zuen argitara, ibar horretako udalek babesturik, eta 1996an «Goizuetako udal ordenantzak».

Euskararen bilakaera historikoa ezagutzeko ezinbestekoak dira arruazuarrak argitara eman zituen euskal testu zahar guztiak. Hauek neurri handi batean dialektologiarekin daude loturik, euskara galdu den Nafarroako leku askotan testuak besterik ez baitugu bertako euskara ezagutzeko, onomastikaz landa. Aipatu dugu aspaldi honetan kalean den *Euskal testu zaharrak I* liburua, eta oraindik argia ikusi ez duen *Euskal testu zaharrak II* ere bai, baina Satrustegiren lana ez da horietara mugatzen.



Izan ere, horietaz gainera beste hamaika testu kaleratu zituen, hainbat aldizkaritan: «Cuatro promesas matrimoniales inéditas, en euskera del s. XVI», «Utzamako euskal testu argitaragabeak», «Lesaka eta Luzaideko euskal testu parekatuak», «Arruazuko gabon-kanta zaharra», «Arakil aldeko euskara» eta «Olaibarko euskal bertso papera», besteak beste.

Ezin ditugu ahortzi adiskide eta akademiakide izan zuen Mitxelena-ren paper argitaragabe franko kaleratu zituela *FLV*-en, horien artean erreteriarren eta Holmer suediar hizkuntzalariaren arteko gutunak, «Información magisterial en la correspondencia de Holmer y Mitxelena» izenpean atera zirenak, Mitxelena-ren eta Arestiren artekoak («Aresti eta Mitxelena-ren arteko posta harremanak») edo haren eta Miranderen artekoak («Miranda eta Mitxelena-ren arteko posta harremanak»). Erreteriarren izkribu ezezagun batzuk ere argitaratu ditu aipatutako agerkarian: «Eusko y Euskal», «Comparación y reconstrucción lingüísticas», «Arantzazuko batzarra (1956)»...

Bukatzeko

Satrustegi, A. Iñigok dioenez (2003), bizi osoan euskal hizkuntza eta kultura ezagutze-
ra ematen eta zabaltzen saiatu zen, buru-be-
larri ikertzen eta berreskuratzen, hain be-
reak zituen adorea eta kemenaz gure *lingua*
navarrorum normalizatzen eta duin egiten.
Horregatik ez zuen imajinatu ere eginen hil-
tzean, «euskaldunen hiri buruzagi»-tzat har-

tu den Iruñeko Bideko Ama ospitalean, eliz-
barrutiko burua ere baden hirian ez zela iza-
nen berari oliadura euskaraz emateko ez
apez euskaldunik, ez eta ere sakramentuen
euskal libururik. Tristeia da gero hau! Hala-
beharrez apez euskaldun adiskidea gertatu
zen erietxean egun hartan, eta hari esker
eman ahal izan zitzaion Jose Mariri oliadura
euskaraz, ez bestela. Betikoa, euskaldunak
etxean ere arrotz.



Hernanin, buruko infartoa izateko bezperan, beste euskaltzainekin, 2003ko otsailaren 28an

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Jose Mari Satrustegiren familiari, bereziki arreba Pilarri eta iloba Maribiri
- Andres Iñigo euskaltzainari

Bibliografia

- Iñigo, A. (2003): «Esker ona Jose Mari Satrustegiri», martxoaren 28ko *Egunkaria* eta *Gara*.
- Iñigo, A. (2003b): «Homenaje a José María Satrustegi. Su aportación en el campo lingüístico», *FLV* 96.
- Irigarai, A. (1974): *Una geografía diacrónica del euskera en Navarra*, Ediciones y Libros, Iruñea.
- Jimeno, R. (2003): «Homenaje a José María Satrustegi. Su aportación a la Antropología histórica y cultural», *FLV* 96.

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2004ko azaroa
Ale-kopurua:	3.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Joseba Olalde (g.b.)
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2191-7 (Lan osoarena) 84-457-2195-X
L.G.:	BI-2.961-04